



Akelarre. Nestor Barrenetxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturen adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.


KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

bertan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA



Tere Lopez de Munain:
Antzerkia eta bizitza uztartuz.

1998ko apirilaren 28a. 3. zenbakia. Lege gordailua: BI-85-98. 125 pezeta.

Euskal eskola publikoaren festa ⇨ Pilota eskola ⇨ Mamurrak ⇨ eta askoz gehiago...



bertoko informazioa
bertokoon eskutik
bertokoontzat

Santutxuko
Euskal Txokoa



"Euskalgintzan oraindino badugu zeregina"

Honetan gabiltza:
Clown ikastaroa
Santuskaratxu

Honetan edo beste zerbaitetan zeuk ere
zerbait egin gura baduzu, hemen gaituzu:

Pernet 9, Santutxu
telefonoa: 4735448

e-posta: asapala@eusnet.org

**OTXARKOAGAKO
EUSKAL TXOKOA**

Gure auzoan ekinean

*Ikastaroak, irteerak,
kultur ekitaldiak...eta
beste hainbat gauza
antolatzen ditugu*

Euskaraz bizi!

Telefonoa: 4121877

1998ko apirila. 3. zenbakia.

- 4 ⇨ **BUZOIA**
IDATZI DIGUTENA
- 5 ⇨ **BERTORATUAK**
"GERO TELEBISTA KANAL BAT"
"SALOU, TXOKO EUSKALDUNA"
- 6 ⇨ **Beitu!**
GAZI-GOZOAK
- 7 ⇨ **Begia**
- 8 ⇨ **MAHATSORRIA**
BEGOÑA ETA EUSKERA
BEGOÑAKO GANADU
ERMANDADEA

- 10 ⇨ **BATU GURERA!**
MAMURRAK AISIALDI TALDEA
- 11 ⇨ **BERTON DUGU!**
ASTE SANTUA, OPOR SANTUAK!
- 12 ⇨ **BerBETAN**
TABERNETAKO ORDUTEGI BERRIA.
- 13 ⇨ **BAKARKA**
TERE LÓPEZ DE MUNAIN
- 16 ⇨ **MAHATSBERRIAK**
- 21 ⇨ **BIBA ALEGRANTZIE!**
ESKOLA PUBLIKOAREN FESTA

- 24 ⇨ **BOTA BA!**
TXURDINAGAKO PILOTA ESKOLA
- 26 ⇨ **BIDEAK**
KULTURBERRIAK
- 28 ⇨ **BEJONDEIZULA**
Lehiaketa mundiala!
- 29 ⇨ **BADATOS**
AGENDA
- 30 ⇨ **BURUHAUSTEAK**
DENBORAPASAK
- 31 ⇨ **BERTSOTAN**

berton

ARGITARATZAILEA:

Batana Batu Kultur Elkarte

ERREDAKZIOA:

Aita Pernet 9

Bilbo - 48004

Telefonoa: (94) 4735448

E-posta: berton@mail.com

ZUZENDARIA:

Aitziber Laskibar

ERREDAKZIOA:

Unai Cuevas, Arrate Diez, Urtzi
Urrutikoetxea, Zuriñe Uriarte, Jaione
Letamendia, Itxaso Perez.

ARGAZKIAK:

Iñigo Azkona

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Joseba Barrenetxea, Benito Fiz

KOLABORATZAILEAK:

Joseba Zelaia, Iñaki Gaminde, E. Basozabal,
Idoia Irastorza, Igor Martin de Vidales,
Santutxuko Bertso Eskola, Iñaki Zabaleta,
Nerea Lizana.

ADMINISTRAZIOA:

Koldo Urrutikoetxea

PUBLIZITATEA:

Eneko Ribas, Unai Cuevas

LEGE GORDAILUA:

BI-85-98

ALE KOPURUA:

1000

Aupa Mahatsorriok!

Tire ba! Hirugarrenari be eutsi dotsegu baie, atara orduko, lelengo kejak atzeti. Parkatu baie... nirie etxata ailegau... aizu, eske... niri oraindik ez zait etxera heldu eta... dedio! eta danok ordaindu dozue ondo eta hori dana eta helbidie ondo imini te... baietz ba! mekasuenlaletxeeeee! ba bai, gurie da errue, tire, gurie gurie b'ez. Ixen, korreosena da. Edo biharginena, baie ezkara oin greba eskubidien kontra hasiko ezta? Ba hori, kontue da hiru egun emon audezela greban eta betiko moduen tontoena atrapau aun erdidxen, enfin, hona ta hara gure inbestigazinoak iten ibili gara eta erruen zati handixena aurek daukie, edo bueno, kontue da holan lotu dala gauzie, baie lasai, gehidxenori, hau leidu orduko ailegauko jatzue eta. Eta keja gitxiau batzuri beste bat emon'tzuegu eta! Ostantzien, oindik tireka gabiz erritmoa ezin hartute, harpidetzak gehidxau dauz baie oindik geeehidxau gure duz, halandaze, tire kuadrilieri, gurasoari, aitite eta amamari eta etxe ondoko erdeldune engainetan b'ozue, ba hori irepaziko guk, euskeriek, Euskal Herridxe, munduek, kulturiek, kazetagitziek, eztakixue ondo zelango behar handidxe in zeinkien tabarrie apur bet horti zabalduete, somnifero lez be balidxo ei deu, kontzientzidxe garbi garbi dozuela ohiratuko zarie eta ia zelan eztozuen lorik hartzen holan! Ba hori, aste santu bueltati, jai guztidxe ganien idxe -Zurbaranbarri, Otxarkoaga, Santutxu...- hartuixue tartetxue aliok leiduteko eta badakixue -ia behingoan klaru itxiten dun- zuen kolaborazinoak eztirela ondo hartuten hamen, ezta hori kontue, behar beharrezkoak direla!! Altua esan lei, klaruau, ezin. Halandaze, astinddu hori alperkeriori, eta zuon ingeruko dudie, kejie, umien kanpeonatoa edo dana dalakoak, hamen dauko lekue.

Signed by:

Beste matzorriano bat

idatzi digute...

Metadonaren banaketa deszentralizatua nahi dugu

Aspalditik gure gizartean gaixo drogazaleen egoera oso larria da. Arazo honi irtenbide bat emateko asmoz, Osakidetza orain dela zazpi urte, "Conde Mirasol" dagoen Osasun Zentroan metadona banatzen hasi zen.

Han biltzen ziren egunero programa honetan sartuta zeuden Bizkaiko drogazale guztiak baina berandu konturatu ziren astakeriaz: egoera hau aprobetxatzen, auzo honetan areagotu egin ziren drogen trafikoa, mafiak, kameiluak... eta mundu honetan dauden guztiak han zeukaten haien bilketazentrua.

Handik aurrera eta auzokoen eta Barrutiarren kexak jaso ondoren, metadona-banaketaren deszentralizazioa planteatu zen. Era honetan, zabaldu egin zituzten Algorta eta Gernikan bi zentro eta Bilbon, San Inazioko Osasun Mentalerako Zentroa, Novia Salzedon dagoen zentroa, Iralan, eta Errekaldeko Modulo psiko-soziala. Honetaz gain, Bizkaia mailan 75 farmaziatan hasi ziren ematen.

Urtebete beranduago egunkariaren bidez, metadona banatzen hasi zirela enteratu ginen. Zentro bertan galdetuta, baieztatzen digute gure zalantza: 13 gaixokin hasi direla modu espe-

rimental batez.

Bizkaiko Osasun Mentalerako Zuzendariarengana (Jose Martin Zurimendi) jo genuenean, metadonaren deszentralizazioaren egitasmoa azaldu zigun: haien proposamena zen gure Zentroan 45 edo 50 gaixo drogazale tratatzea, eta honek ez zuela inolako arazorik emango.

Datu gehiago biltzen, kontrae-



san potolo bat ikusi genuen: ez zela posible zifra hori mantentzea, zeren gure zentroa auzo askotarako zen: Solokoetxe, Santutxu, Alde Zaharra, Bilbo Zaharra, Begoña, Bolueta, Zurbaran, Zurbaranbarri, Urbarri, Matiko eta Castaños.

Momentu honetan, gure hasierako beladurak ez zirela txantxetakoak ikusten ari gara. Aste Santuan "Conde Mirasol" Zentroa erabat itxiko dute eta hango 45 gaixoak Solokoetxera joango dira. Lehengo 13ak gehi

45 gaixo hauek 58 dira eta itxaroten daudenen zerrenda oso luzea dela jakin dugu.

Guk argi utzi nahi duguna da ez gaudela metadona banaketaren kontra, ezta gutxiago ere, baina deszentralizazioa benetakoa bada, gure auzoan ere honela nahi dugu. Anbulatorio guztietan eta farmazia askotan banatuko balitz opiazeo hau, auzo guztietan eskainiko litzateke zerbitzua eta ez litzateke problemarik sortuko. Gainera, zentro hauek gaixoengandik

hurbilago geratuko lirateke. Normala da gaixo bat egunero Zurbaranbarritik edo Boluetatik Solokoetxera etortzea?

Solokoetxeko auzoak metadonaren alde gaude baina deszentralizatuta. Guk ez dugu gure auzoa arriskutsu bihurtzerik nahi eta horregatik urritik borrokatzen gaude: hemen "Conde Mirasol"en antzekoa gerta ez dadin.

Amaitzeko, kontutan hartu beharra dago gure auzoan kokatzen diren ikastetxe kopurua: Solokoetxe Ikastola (Karmelo Ikastola-Bigarren hezkuntza), Maristas, Angeles Custodios, Hijas de la Cruz, Udal Musika Eskola, Akademia bat, Futbol Club Solokoetxe, Orfeon San Anton, Irrintzi.

Solokoetxeko Auzokideen Koordinakundea

kolaborazioak

Gero telebista kanal bat

Iñaki Zabaleta Urkiola



Bertako-aldizkariaren kopurua nahiko handia da Euskal Herrian. Oker ez bago, 50 aldizkari inguru argitaratzen dira. Eskuetan dugun *Berton* hau beste saio berri bat da, *Euskal Komunikabideen Gunea* aberastu eta indartzeko bidean.

Euskal hedabideak tamaina eta hedadu-raren arabera aztertzen baditugu, hurrengo sailkapena egin dezakegu: EITB, Euskaldunon Egunkaria eta Argiaren moduko hedabide nazionalak; Bizkaia Irratiaren moduko herrialde neurrikoak; eta azkenik, bertako-hedabideak edo "herri-komunikabideak", hainbat herri, auzo eta herrialdetan

bizi diren aldizkari eta irratiak.

Nazioartetik etorri den liberalizazioak - irrati eta telebista kanal ugari merkatua errege jarri den gizartean- eragin handia izan dezake euskal hizkuntz komunitatearen kontsumo ohituretan eta, erronka horiei aurre egiteko, bertako-komunikabideek oso garrantzi handia izango dute, bai eskaintza ugalduz, bai eduki, ikuspuntu eta iritzi desberdintasuna bermatuz. Beraz, *Berton* aldizkaria euskal komunitatearen proiektu zabalago baten mahats-landare modura hartzen dut. Mahatserrri bertatik hasiz. Berton bizi garenontzat baliagarria baita honelako produktu bat.

Eta aldizkaria sendotzen denean, bertako-irriti bat jarri beharko dugu; eta irrati jarri ondoren, Bilborako herri-telebista bat euskaraz, beste bertako-komunikabideen artean. Ez da batere zaila egitea. Dirua bilatu beharko dugu. Beharrezkoa izango dugu!

Salou, txoko euskalduna

Nerea Lizana



"Agian katalanez zeozer ikasiko dugu", pentsatu nuen autobusa Katalunian sartu zenean. Erraza iruditu zitzaidan, izan ere, trafikoa seinaleak eta dendetako kartelak katalanez idatzita zeuden. Saloura ailegatu bezain laster dena

desberdina zela konturatu nintzen. Taberna aurrean ikusi nuen kartelak lehenengo pista eman zidan: kalimotxoa saltzen zuten (k-z idatzita gainera). Apartamentura iritsi bezain

laster bigarren pista: goiko pisutik Negu Gorriak entzuten zen.

Bi horiek mila milioi pistako zerrenda bateko lehenak izan ziren. Salou, Aste Santuan, behintzat, euskal kolonia da. Josep, Angels, Jordi edo Mari Pau entzun beharrean Sorkunde, Patxi edo Ainhoa entzuten da.

Kalimotxoa edaten genuen, Hertzainak eta Su ta Garren kantuak abesten genituen bitartean. Athletic eta Errealaren aldeko kontsignak ziren nagusi. Eta, noski, katalanez ez nuen ezer ikasi, baina bai Gipuzkoako Goierri hainbat gauza nola esaten diren. Horrexegatik esaten dut nik: Salou Barnetegi.

gazi-gozoak



Biboko Udala kale-izenen plakak euskaraz ipintzen hasiko ei da. Horrela esanda albiste ona dirudi, sari gozoa emateko modukoa. Ez da hain polita kontua baina, izan ere, prozesu hau astiro egingo da eta lehenengo fase



batean euskal izena eta erdal izena oso desberdinak diren kasuetan baino ez dira euskaratuko plakak. Beraz, oraindikarren "Calle SANTUCHU kalea" edo "Calle FICA kalea" bezalakoak luzaro ikusten segitu beharko dugu, antza.



Sari gozoa oraingoan Santutxuko Euskal Txokoaren barruan lanean dabitzan komertzianta batzuei eman gura diegu. Orain dela hilebete

batzuetatik hona komertzioetan euskararen erabilera sustatzeko kanpaina bat egin guran dabilta. Oraindino oihartzun handirik lortu ez badute ere, ahaleginak merezi duela gaude, ahalegina eta guztion laguntza ere bai.

Aurrera ba! Eta ea Santutxu eta Mahatserri guztiko denda-tabernetan euskaraz kartel eta errotulo gehiago ikusten ditugun, eta euskaraz egin ere bai, jakina!

EUSKAL




TXOKOA

ANGEL

HARATEGIA -URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6 Tfnoa: 412 48 59



jo ta ke
Otxarkoaga
euskaldundu arte!
Pa... Yak baditu alternatibak
demokratikoak noski!!




1998ko MAIATZA

01 ostirala	20:00	Disperzioaren kontra lanean ere (Berriak)
02 ostirala	20:00	ALAITZ ETA MAIDER NAHI TA NAHI EZ NOIZBAIT
05 asteartea	20:00	KULTUR HITZORDUA "URVAN Euskal Herriari gutsiz"
06 asteartea	20:00	MOLOTOV (Mexico)
07 osteguna	20:30	ANTZERKIA KROMLEC (Fregoli Antzerki taldea)
08 ostirala	22:00	ANJE DUHALDE
10 igandea	17:00	OLGERTAN haur jata "TAKOLO, PIRRITX, PORROTX LO" JO
13 ostirakena	20:30	"DANA LANBROTUTE IKUSTOT
14 osteguna	22:00	Postak: diru positibak eta kantak
15 ostirala	22:00	REINCIDENTES Zuzeneko grabazio-konkretua
16 larunbata	22:00	GARI
17 igandea	21:00	HOT KNIVES (Sika GB)
21 osteguna	22:00	LA GARRA MECANICA "Teatiko eta tria" diskorik asakizpene
25 ostirala	22:00	DOCTOR DESEO
28 osteguna	22:00	TILT "Deribore" diska berriaren aurkezpena
29 ostirala	21:00	FDEZ, ARRIETA trio
	22:00	BERTSO AFARIA (X. Euzkitze, J. Sarasua)

San Vicente 2 48001 BILBO
Tel: 424 4625 Fax: 424 2802

Laguntzailea: BI-96.0-FM
-Bilbo Hiria irratia-

bertin



Haurrak, haurrak, haurrak ederrak haurrak, nongoak zerate? Espainiako Don Feliperen seme-alabak gerade; aurren gaixoa pasa liteke, azken gaixoa preso de.

Haurrak, haurrak, haurrak ederrak ai haurrak, nora zoazte? Espainiako Don Feliperen jauregira goaz eske; intxaur gozoak omen ditu ta gurekin etor zaitezte

Haurrak, haurrak, haurrak ederrak nondikan zatozte, nondik? Don Feliperen etxetik gatoz intxaurrik ez da oraindik, balego ere, ai, guretzako ez omen da ezer handik.


Xabier Amuriza

D E G I A

MAHATS ORRIA

Mahatserria zana, dana eta izango dana

Begoña eta euskerea



Behean eskoian sorginzulo izeneko baserria edo lekua ikusten da orain dela urte batzuetako argazki honetan. Baserria Otxarkoagako bariantearen obrak dirala eta orain dala gitxi bota dabe.


⇒ E.Basozabal, I.Gaminde, I. Irastorza eta I. Martín de Vidales

Nok ez dau inoz entzun sorginen ganeko konturen bat? Bariku guztietan batzen ei zirean suaren inguruan akelarrea eguzkia joan eta gero. Akelarrea sorginen gau bilera zan (edo da?), bilera zaratatsu eta nahastua. Sorginak, akerraren jarraitzaileak, halango bileretara joan ei zirean hareri gurtza egiten: opariak eroan, egintzen kontu emon, aginduak jaso eta osterantzeko errito eta eginkizunak betetzen. Badirudi honek bilerok aintzinako sinisteetan oinarrituta, kristau erlijinoaren aurkako ezkutuko mugimendu baten adierazpen bide zireala, eta baita, ameneko¹, garaiko Euskal Herrian indarrean egoan gizarte antolakuntzaren aurkakoa, bere.Hau dala eta sorginen irudia lohituta gelditu zan eta horregaitik berorregaitik sorgin onak eta txarrak desbardindu behar direlakoan gagoz, adibiderik argiena gure Anbotoko Mari dogu.

Honek batzarrok Euskal Herri osoan zehar egiten zirean. Ezagunak dira batez bere Zugarramurdikoak, baina hor-hemenetan makina bat "Akarlanda" topa geinke, esate baterako Erandion edo Jataben. Sorgin batzuk ospetsuagoak izan badira bere, ez

horregatik gure auzokoak baino garrantzitsuagoak. Asago joan barik, Begoñan bertan holangoak egiten ei zirean, Sorginzulo deritxon inguruan. Sorginak gauerdian Artxandatik Sorginzulora ilbehera egoan egunetan jeitsi eta bertan euren batzarrak egiten ebezan.

Halandaze, Bilbon bere, sorginen topalekuak eduki doguz, nok daki daborduko² amatatu direan ala ondinokarren egiten direan.



Sorginzuloko azkenengo argazkietako bat.

1998ko apirila. 3. zenbakia.

Begoñako ganadu ermandadea

Begoñako baserrietan, beste edozein baserrian modure ganadue egon da orain dala gitxira arte, eta ganaduagaz batera, feriek, mataderoa eta ermandadea be egon zan, holan kontatu deusku, Arbolantxako Goikoetxe baserrien bizi dan Karmelo Elorriagak



Karmelo andre Arantzagaz baserrian

⇒ Koldo Urrutikoetxea.

■ **Ezetu dozuz ganadu feriek Begoñen?**

Bai, ferie Basarraten iten zen urtien bitan, Domu Santuen eta Martiko³ Andra Mari egunean.

■ **Ganadue eta, non hiltzen zen?**

Len Matikon egon zen mataderue baie⁴ herri guztietan egoten zen, Biribitan⁵, Etzebarrin be bai. Ermandadeak berak be matarifie ekarri eta ermandadean hiltzen eben. Gero subastan salduten zen, beie zatitu eta zati honegatik honenbeste, iztarragatik honenbeste, aregaz okeleaz zezine eiten zen.

■ **Zelan egiten zen zezine?**

Okelea txikertute gatzunean⁶ iminten zen, tiñeku⁷ batean hiru edo lau egunien salmueran.

■ **Ermandadie aitatu dozu. Begoñen hainbeste ganadu egonda ganadu ermandadie be egon zen ezta?**

Bai bi egon ziren bata Sindikatoan eta bestea Zizerunen edo Larrakotxen, ez dakit.

■ **Ermandadiiek zelan funzionaten eben akordaten zara?**

Bai, porreta⁸ bat pagaten zen, urtien honenbeste, zenbet eta ganadu gehiago, gehiago pagaten zen. Beiek danak ezetuten ziren izena eta guzti, ernari⁹ badau, ernari zenbet denpora dau, txala badeko eta dana.

■ **Nok iminten eutsuen prezioa?**

Tasadoriek egoten zirean, eta urtien bitan edo etorten ziren, bata Patas difuntue eta bestie Pintxos difuntue, beiek hamar balio bazeuen sei iminten eutsun igual ezta... atzenengo tasadoreak Zamarripa eta Garmendia edo egon ziren, orduen desegin zen dana.

■ **Zelan izen zen hori ba?**

Zamalloneko Meliton difuntuari beie hil jakonean orduntxe akaba zen ermandadea. Garmendia eta Zamarripa niri topa eustien Arenalean justu, ..kontxo bagizak¹⁰ bazkalduten!!!, eta joan gintxen bazkalduten. Ni be eurekaz eta beien ardurea koxi¹¹ beharrea mataderora eroteko edo, hantxe gauerarte eta Zamalloneko beie..... aitzu, beie esistiduten zanik bez.

¡¡¡¡¡ Ahora venís, nekaguen, nekaguen !!! juramentu hutsien Angel, Melitonen semea. Eta hantxe akaba zen ermandadie.

Hiztegia

1. ameneko: beharbada, akaso.
2. daborduko: dagoeneko.
3. martia: martxo
4. baie: baina
5. Biribitan: Bidebietan (Basauri)
6. gatzunean: gatzetan

7. tiñekua: barrika, kupela txikia
8. porreta: prorrata, errenta
9. ernari: umedun, kumea egiteko
10. bagizak: bagoazak (bagoaz hitanoan)
11. koxi: koiu, hartu.



Mamurrak aisialdi taldea

Aste santua, opor santuak!!!

Aste Santua, oporren aste bezala ezagunagoa egiten da gaur egun. Batzuentzat (ikasleentzat), aste hori bi astetara luzatzen da normalean. Udako oporrak urrun ikusten dira eta hauekin moldatu beharra dago. Gehienek aisialdi eta opor egun bezala igarotzen badituzte ere, batzuek izen literalari kasu eginez prozesioetan barneratu eta era erlijiosoan ospatzen dituzte.

Unai Cuevas

Gaur egun, Aste Santuak oporrak suposatzen ditu eta ahalik eta gehien disfrutatu beharra dago egun hauetan. Aste Santuak, udako oporren aurretik dagoen azkenengo atsedendaldi nabaria suposatzen du. Pilak kargatu ohi dira berriro ere lanean edo ikasten hasteko, eta han urrunean somatzen diren udako oporren geltokira iristeko haina energia eman ohi dute. Batzuek bizikleta, beste batzuek kotxea, beste batzuek autobusa eta ahal dutenek abioia hartu eta bidaiaren bat egiten dute. Beste hainbatek, aldiz, atsedena edota "etzanding"-a nahiago dute eta esfortzu minimoaren teoria maisutasunez aplikatzen dute beren etxeetako egongeletan. Opor aroa da eta beraz bakoitzak egin dezala nahi edo ahal duena!!


Mendira igo, hondartzara joan (eguraldiak laguntzen badu), eskiatzera joan, bizikletan ibili... gauza ugari egiten dira Aste Santuan baina batez ere bidaiatzeko aprobetxatzen da. Honen ondorio argia bidai agentziek eta hotelek izaten duten lan ugaria da (bizitzaren paradoxak: batzuk lanean besteek oporrak gozatzeko). Lanean aritzen direnentzat Ostegun Santuarekin hasi eta Bazkoako astelehenarekin bukatzen da. Ikasleentzat, Aste Santua bikoiztu egiten da ia bi astetako oporraldia baitute. Hau dela eta klasera bueltatzea lanera bueltatzea baino gogorragoa egiten zaie askori. Aste Santuan Mahatserria lasaiago bizi ohi da. Ez da somatzen lan egun arrunt bateko mugimendua. Kaleak isildu egiten direla dirudi eta hainbat komertziok burdin edota latorrizko pertsianekin ixten dituzte beren ateak. Isiltasun eta lasaitasun hau, entrenamendu bat besterik ez da. Udako oporrei begira egiten den entrenamendua. Badirudi Mahatserriko kale jendetsuak bakarrik geratzen direla, hutsik, eta bakardade hau oso arraroa egiten zaiela. Baina kaleek ere opor gisa hartzen dituzte egutegietan gorriz margotutako egun hauek, eta beren atsedena hartzen dute. Oro har, hiritarrek lanik egiten ez dutela nabari da eta kaleek eskertu egiten dute jendeak oporrak hartu izana. Hala ere, lasaitasun hau ez da erabatekoa. Mahatserrian jende ugari bizi da eta askok alde egiten badu ere, geratzen direnak ez dira gutxi izaten. Eta askotan, geratzen direnekin nahikoa izaten da

BEGOÑARA ITZULI DA PROZESIOA

Mahatserritar fededun eta sinesleentzat aipagarria da Aste Santuko prozesioa Begoñako kaleetatik zehar ikusi ahal izan zela. 23 urtetako etenaldia eta gero berriro ere bueltatu egin zen ohitura hau Begoña aldera. Prozesioaren ibilbidea hau izan zen: Santa Monika-Begoñako Ama Birjina-Elizalde- Etxebarria parkea-"La cruz" auzoa- Begoñako Ama Birjiña- Amadeo Deprit- Elizalde- Sta. Monika. Begoñako kaleei berriro ere Aste Santuko kutsu fededuna eman zien prozesioa Andra Mariren Karitatearena izan zen.

Zuriñe Uriarte

Arratsaldeko laurak dira. Larunbata izanik, Karmelo ikastolako jolastokian astean zehar ezohikoa gertatzen den isilunea da nagusi, nahiz eta ordu erdira jolaslekua haurrez betetzen hasiko den. Aisialdi talde honek aurkezpen jai bat antolatu du egun honetarako, berrogeita hamar bat ume bilduko dituen. Izan ere, martxotik hasita eta ekainera arte ia larunbatero arituko da Mamurrak umeekin gauza ezberdinak egiten. Bostetarako haur guztiak jolasean dabiltza alde batetik bestera. Nagusienak zarataka



Begirale eta haur sokatiran.

Argazkia: Mamurrak

eta gazteenak isilago, gustora ibiltzen dira umeak alde batetik bestera korrika eta saltoka. Arratsaldeko seiak aldera, jaiaren azken txanpa iragartzen duen txokolatada ospatu eta gailatekin lagunduta, haur eta begirale gehienak ordu erdi arinago prestatuak dastatzen dute. Sei eta erdietan ikastola berriro isiltasunera itzultzen da, nahiz eta hurrengo asteburuan berriro elkartuko diren haurrak eta

begiraleak beraien denbora jolasean emateko asmotan.

MAMURRAK AISIALDI TALDEAREN SORRERA.

Aisialdi talde hau 1.996ko gabonetan jaio zen Urtxintxaren (begirale formakuntza) aholkularitzarekin. Bi urte hauetan ekintza gehienak Karmelo plazan egin dituzte, nahiz eta inguruko auzoetan antolatzen diren jaietan ere lan egin duten. 15 bat begiralek osatzen dute Mamurrak taldea eta bi helburu nagusi dituzte, euskara auzoan zabaltzea batetik eta auzoko baldintza urriak direla eta, haurren arloa lantzea eta jolasean aritzeko aukera eskaintzea bestetik.



Mamurrak-eko zenbait begirale.

Argazkia: Mamurrak




DA T U G U R E R A !

D E R T O N D U G U I



I N K E S T A

Zer deritzozu Tabernen ordutegi berriari?



A i t o r
(Kaiku taberna)

«Niri nahiko txarto, jendea gauean irteten denez, diru aldetik galerak izaten baititugu. Bestalde, pertsonalki hobeto datorkit, lanean arinago bukatzen dudalako».




B e n i t o
Tortuga taberna

«Ez naiz ordutegi berriaren aldekoa. Jendea berandu irteten da eta lokalaren errenta ordaintzeko behar dudana dirua lortzeko mugaturik ikusten naiz».



J o s e b a
Guretxe taberna

Guretzat ordutegi berria txarragoa da. Lan egiteko askatasuna zapaldu egiten du erabat».



J o s u
Otoio Mendi taberna

«Esaldi batean esanda, de puta pena. Taberna txikiak kalteturik ateratzen dira eta kafetegi eta pub jakin batzuei on egiten die».



O l a t z
(Santutxu)

«Putada bat da. Gazteok lekuak behar ditugu hitz egiteko eta lagunekin egoteko. Gainera, gaur egun jendea berandu irteten da arratsaldean beste gauza batzuk egiten dituztelako».



L o l l i
(Solokoetxe)

«Ez zait gaizki iruditzen. Ordu biak ordu ona dela uste dut. Gazteek arinago irtetera ohitu beharko lukete».



L e i r e
(Santutxu)

«Oso txarto. Jendea ordu horretan kalean dago oraindik. Inposatu diguten lege bat da, izan ere, tabernari eta bezeroak ordutegi berriaren kontra daude».



I ñ i g o
(Solokoetxe)

«Ez dut lege berri honen helburua ulertzen. Jendea ordu bietan ez doa etxera eta tabernak ixten dituztenez, zarata gehiago dago kalean».

Argazkiak: Iñigo Azkona.

T E R E L O P E Z D E M U N A I N :

“Antzezle izateak bizitzaren muinean sartzea eskatzen du”

Tere Lopez De Munain santutxutarra ETB1eko Goenkale eta Benta Berri telesailetan parte hartu duen aktorea dugu. Txurdinagako institutuan Karraka taldearekin bere lehen urratsak eman zituen. Orain nebarekin kafe antzerkia egiten dihardu Euskal Herrian zehar.

⇒ **Arrate Diez**

berton: Zelan hasi zinen antzerkigintzan?

Tere: Txurdinagako institutuan Karraka taldeko lagunak antzerki

harremana ez zen zuzena jendea bertan ez zegoelako, baina beste aldetik, oso zuzena zen ez bainuen aurretik ikasitako pertsonaia bat, irten behar nuen ea zer ematen nuen. Hau Berera

Gatoz izeneko programa zen, berau aurkeztu eta egoera batzuk dramatizatu egiten nituen.

berton: Zer nahiago duzu, platoa ala eszenatokia?

Tere: Biek dute bere xarma edo gakoa. Eszenatokiko lana lan

libreagoa da, beharbada ikasiagoa delako, eta niri inprobisatzea asko gustatzen zait. Platoan, berriz, egoera tentsioagoa da, ekipo oso bat duzu zeure gainean eta lana oso azkar egin behar izaten da, sekuentzia bat bestearen atzetik eta abar...

berton: Zer nolako esperientzia izan da zuretzat Goenkale eta Benta Berri bezalako telesailetan agertzea?

Tere: Oso esperientzia ona izan da alde guztietatik, oso pozik egon naiz lan giro aldetik, lagunekin eta profesionalki ere bai. Pertsonaia berbera egiteak denboran zehar pertsonaia-renganako identifikazio handia ematen dizu, oso eroso sentitzen

"Pertsonaia berbera egiteak denboran zehar pertsonaiarenganako identifikazio handia ematen dizu, oso eroso sentitzen zara pertsonaia horrekin."

tailerra ematen ziguten eta hori izan zen antzerkiarekin nire lehen harremana. Beti gustatu zait dantza egitea, kantatzea eta abar... Orduan hamabost bat urte nituen. Gero filosofia ikastera Donostiara joan nintzen eta han filosofiaz gain antzerkia ere ikasi nuen.

berton: Zelan pasatu zinen eszenatokitik platora?

Tere: Telebistarekin izan nuen lehen kontaktuan nirea zen pertsonaia eta inprobisatu egin behar nuen. Jendearekin



N
A
T
E
B
R
E

D
A
K
A
R
K
A



du buruan ezer ez daukazula irtetea, baina daukazuna atzetik duzun ofizio bat, hau da, ziurtasuna, kontrola, entzumena eta abar, bizitza gauza bera da, zu zeu izateko ere atzetik esperientzia behar duzu

berton: Zenbat urte daramazu aktore lanetan?

Tere: Gutxi gorabehera hamabi urte daramat aktore moduan lanean.

"Jendeak komentatu, hitz egin, edo agurtu egiten nau, eta zure lana nonbaitera heltzen dela ikusten duzu."

berton: Zer oroitzapen duzu zeure auzo ohiaz?

Tere: Oso oroitzapen ona dut, orain gehiago gustatzen zait Santutxura eta Bilbora joatea. Bilbo oso toki agresibo bezala bizi izan dut txikitatik, oso itxia zen niretzat eta beti itsasora irteten nintzen.

Oso kale estuak, etxe altuak, kultur gunerik gabekoa iruditzen zitzaidan.

Orain beste modu batez ikusten dut, garai hartako sentimendu pertsonalak ziren, ez neukan heldutasunik eta mundua agresiboago ikusten nuen. Gero, helduagoa zarenean eta buru jabetasun handiagoa duzunean, oso ezberdin ikusten duzu, maitasun ezberdinaz sentitzen duzu.

Hautzarotan, ni Mina del Morro ikastetxera joan nintzen, gero Briñasera baita Santos Angeles Custodios ikastetxera ere, eta azkenez Txurduinagako institutuan egon nintzen. Fika kalean bizi nintzen eta oso oroitzapen onak baina baita tristeak ere ditut garai haietakoak.

berton: Zer nolako aldaketa izan da zuretzat Santutxutik Donostiara joatea?

Tere: Aldaketa izan da ni nolabait guraso eta familiarik at bizitzea. Donostia, herri antzeko hiria da, dena dela, niri orain asko gusztatzen zait Bilbora joatea, museoetara, erakusketetara eta abarretara. Bilbon beti aurkitzen dut jendea eta saltsa desberdinak, hau da, kosmopolitagoa da.

berton: Zer eragin izan du zure bizitzan telesailetan agertzearen ospeak?

Tere: Hemengo ospea erlatiboa da Euskal Herria herri txikia da. ETB1en lan eginez ospea edukitzeak ez du suposatzen Madrilen lan egiteko aukera handiagoa duzunik. Jendeak nolabaiteko hurbiltasunarekin ikusten zaitu eta ni, gutxienez, sinpatiaz. Honek ate batzuk zabaldu dizkit jendearen artean, jendeak komentatu, hitz egin, edo agurtu egiten nau, eta zure lana nonbaitera heltzen dela ikusten duzu.

berton: Zer deritzozu klown taldeek telebistako spot baten aurka egindako protestari?

Tere: Nik manifestua sinatu nuen, eta ikusi nuen aukera bat zela klown-a zer den erakusteko. Publizitateak horrela hartu nahi baldin badu niri bost axola, pailazoa peioratiboki esaten da, baina pailazoa izatea oso osasungarria da, profesionaltasun handia eskatzen du eta nik kristoren errespetuaz ikusten dut. Oso lan fina, zaila, konprometitua eta iraultzailea iruditzen zait, funtsean gauzei buelta ematea baitauka. Edonork landu beharko luke. Urtean behin guk geure buruari barre egiten diogu ihauterietan, pailazoek ere gure buruari, munduari, filosofiari eta gauza serioei barre eta dimentsioak aldatzen dituzte. Manifestu hori aukera bat zen esateko gu ez garela aurkezten gaituzten

bezalakoak. Niri denuntzia bat jartzea edo ez jartzea ez zait asko inporta, baina horrelako manifestu bat egin beharra zegoen.

berton: Zer gomendatzen diozu aktore berriari edo aktore izan nahi duenari?

Tere: Antzezle bidean ospea ez da

"Pailazoa izatea oso osasungarria da. Oso lan fina, zaila, konprometitua eta iraultzailea iruditzen zait, funtsean gauzei buelta ematea baitauka."



gauzarik inportanteena, bai, ordea, mundua ezagutzea. Antzezle izateak konprometzua eskatzen du: bizitzaren muinean sartu behar duzu. Filosofia eta entrenamendu orokor bat dago bizitza ulertzeko «entrenamendu kognitiboa», bide filosofiko bat dago eta alde guztietatik hartu behar dituzu materialak, pinturatik, literaturatik, psikologiatik, gorputz disziplinetatik ikasi behar duzu besteak nolakoak diren ikasteko. Pazientziaz hartzeko lana da, poliki-poliki hartzekoa.

berton: Zelako harremana duzu orain zure auzo ohiarekin?

Tere: Nik Euskal Herrian zehar etengabe aktuzioak egiten ditut. Orain nire neba Paulekin kafe antzerkia egiten dut, eta nahiko nuke nire lan hurbiletik ematen hastea. Auzora joaten naizenean paseatzea gusztatzen zait, txikitant Parroko Unceta auzoan ibiltzen nintzen eta niretzat oso gustukoa da. Begoñako auzo etxean ere entsaiatzen egon gara.



MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Solokoetxeko auzokideen mobilizazioa



argazkia: Inigo Azkona


Solokoetxeko auzokideen protestaldia

Solokoetxeko auzokideen koordinadorak deiturik "Julian de Ajuriaguerra" buru-osasuneko zentroko atearen aurrean kontzentrazio bat burutu zen Apirilaren 2an. Ondoren, Zabalbiden dagoen "Angeles Custodios" ikaste-

txearen parean trafikoa moztu zen. Mobilizazio honekin, Conde Mirasol zentroko (Bilbo Zaharra) toxikomano guztiak Solokoetxeko zentrorra lekualdatzea salatu nahi izan zuten auzokideek. Beren eskaera toxikomanoak zentro

ezberdinetara banatzea zen eta ez denak Solokoetxera bidaltzea. Gatazkak soluzio biderik ez badu aurkitzen, mobilizazio gehiago burutuko zituztela iragarri zuten auzo honetako talde ezberdinek.

Begoñako tunela konponketa lanetan



argazkia: Inigo Azkona

Bada hilabete inguru Begoñako tunela andamioz inguraturik ikus daitekeela. Fatxada ez omen dago oso egoera onean eta konponketa lanetan ari dira. Eskumaldeko arkupetik harriak jausten hasi ziren eta hori da konponketaren arrazoia.

Begoñako tuneleko obrak

Begoñako Udaltegiak urtebetea egin du

Lehenengo martxoaren 14an urtebetea egin zuen Santutxu, Begoña eta Bolueta barne dituen 4. barrutiko Begoñako Udaltegia martxan hasi zela. Begoñako kiroldegia ondoko eraikinak urte honetan zehar zerbitzu desberdinak eskaini dizkie auzo horietako biztanleei, gehien bat Hiritarrekiko harremanetarako zerbitzua eta Kultura eta Turismo sailaren eskutik. Auzoetako talde batzuek hasieratik kritikatu dute Udaltegiaren kokapena eta funtzionamendua. Lekua egokia ez dela batetik, eta auzoen behar izanetarako lain ez izatea bestetik. Edozelan ere, zenbait talde eta jenderen bilgunea izan da, eta aktibitateak ere egin dira.

Otxarkoaga berritze lanetan

Otxarkoagako berritze planaren 2. fasea hasia da dagoeneko. Apirilean sartu orduko hasi ziren lantergi honetan. Fase honek Pau Casals etorbideak eta Ugarte enparantzak biltzen duten ingurua hartzen du. Errepide eta aparkalekuak konponetzeaz gain peatoientzako bideak erraztu nahi dira, asko erabili ezinda geratu baitira. Berdeguneak konpondu eta berriak sortzeko asmoa ere ba omen du Udalak. Honetan guztian 200 milioi gastatuko ditu. Lan hauekin auzoa eraiki zenean eginiko akatsak eta zahartu eta apurtu diren guneak konpondu nahi dira. Lan hauek 1989an hasi baziren ere, momentuz Lozoño ingurua bakarrik dago berritua. Bigarren fasea amaitzen denean auzoaren erdia baino gehiago geldituko da berritu beharrean, zatirik handiena egoera tamalgarrrian dagoelarik. Bitartean



argazkia: Inigo Azkona

Otxarkoagako saihesbidearen obrak

Berehalako Sorospen Brigadak (B.A.I. empresa) ibiltzen da momentuko eta urgentziakoenak diren lekuetan konponketa txikiak egiten eta partxeak ipintzen. Auzoko langabetuak ez dira oso alai agertu plan honen aurrera erama-

teko erarekin, beraien ustez ez baitira kontutan hartuak izan. Familia Elkarteak ere beste urte piloa itxaroten egoterik ez dagoela eta auzo guztiaren berritze plana osorik eta ahalik eta arinen egitea behar-beharrezkoa dela uste du.

Begoñako gasolindegia, parke eta aparkaleku izateko bidean



argazkia: Inigo Azkona

Begoñako gasolindegia zegoen orubea.

Badira bi urte Repsolek Begoñako gasolindegia handitzeko proiektua luzatu zuela. Proiektu horrek aurkako hainbat mobilizazio sortarazi zituen auzokideen artean, Mahatsorri elkarteak zuzendurik. Gasolindegia handitzeko lanak hasi bazituzten ere, protesta hauen

eraginez, lanak geldiarazi egin ziren eta orduztik bere horretan daude. Zertan geratu da azkenean proiektu erraldoi hura? Udaletxeak auzokideen aurkotasuna ikusirik, Repsolekin negoziazio bat egin, eta lur hoiek San Adriango beste lur batzuegatik

trukatu zituen, erabaki honek San Adriango auzokideen protestak piztu bazituen ere. Bien bitartean, antzinako gasolindegia lanengatik suntsiturik jarraitzen zuen. Hori ikusirik eta egindako lana aprobetxatzeko asmoz, auzokideek Udalari bertan parke bat egiteko eskaera egin zioten. Udalak bertan aparkalekua egiteko asmoa zuen eta parkearen ideia egokitzen jo zenez, bi proiektuak biltzea erabaki zuen. Beraz, azken proiektua zera da: hiru solairuko aparkalekua (pisu bakoitzak 90 partzela izanik), eta horren gainean auzokideek eskatzen zuten parkea. Aparkalekuak harrera ona izango duela espero da, baina parkearentzat dagoen aurrekontua eskasegia dela diote auzokideek. Aparkalekua egiteko lanak ekainean hasteko asmoa dago, eta urtebete beranduago bukatzea espero da.

BERRIKARRIA

BERRIKARRIA

MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Solokoetxeko auzokideen mobilizazioa



argazkia: Inigo Azkona

Solokoetxeko auzokideen protestaldia

Solokoetxeko auzokideen koordinadorak deiturik "Julian de Ajuriaguerra" buru-osasuneko zentroko atearen aurrean kontzentrazio bat burutu zen Apirilaren 2an. Ondoren, Zabalbiden dagoen "Angeles Custodios" ikaste-

txearen parean trafikoa moztu zen. Mobilizazio honekin, Conde Mirasol zentroko (Bilbo Zaharra) toxikomano guztiak Solokoetxeko zentrorra lekualdatzea salatu nahi izan zuten auzokideek. Beren eskaera toxikomanoak zentro

ezberdinetara banatzea zen eta ez denak Solokoetxera bidaltzea. Gatazkak soluzio biderik ez badu aurkitzen, mobilizazio gehiago burutuko zituztela iragarri zuten auzo honetako talde ezberdinek.

Begoñako tunela konponketa lanetan



argazkia: Inigo Azkona

Bada hilabete inguru Begoñako tunela andamioz inguraturik ikus daitekeela. Fatxada ez omen dago oso egoera onean eta konponketa lanetan ari dira. Eskumaldeko arkupetik harriak jausten hasi ziren eta hori da konponketaren arrazoia.

Begoñako tuneleko obrak

Begoñako Udaltegiak urtebetea egin du

Lehenengo martxoaren 14an urtebetea egin zuen Santutxu, Begoña eta Bolueta barne dituen 4. barrutiko Begoñako Udaltegia martxan hasi zela. Begoñako kiroldegia ondoko eraikinak urte honetan zehar zerbitzu desberdinak eskaini dizkie auzo horietako biztanleei, gehien bat Hiritarrekiko harremanetarako zerbitzua eta Kultura eta Turismo sailaren eskutik. Auzoetako talde batzuek hasieratik kritikatu dute Udaltegiaren kokapena eta funtzionamendua. Lekua egokia ez dela batetik, eta auzoen behar izanetarako lain ez izatea bestetik. Edozelan ere, zenbait talde eta jenderen bilgunea izan da, eta aktibitateak ere egin dira.

Otxarkoaga berritze lanetan

Otxarkoagako berritze planaren 2. fasea hasia da dagoeneko. Apirilean sartu orduko hasi ziren lanetegi honetan. Fase honek Pau Casals etorbideak eta Ugarte enparantzak biltzen duten ingurua hartzen du. Errepide eta aparkalekuak konponetzeaz gain peatoientzako bideak erraztu nahi dira, asko erabili ezinda geratu baitira. Berdeguneak konpondu eta berriak sortzeko asmoa ere ba omen du Udalak. Honetan guztian 200 milioi gastatuko ditu. Lan hauekin auzoa eraiki zenean eginiko akatsak eta zahartu eta apurtu diren guneak konpondu nahi dira.

Lan hauek 1989an hasi baziren ere, momentuz Lozoño ingurua bakarrik dago berritua. Bigarren fasea amaitzen denean auzoaren erdia baino gehiago geldituko da berritu beharrean, zatirik handiena egoera tamalgarrrian dagoelarik. Bitartean



argazkia: Inigo Azkona

Otxarkoagako saihebidetaren obrak

Berehalako Sorospen Brigadak (B.A.I. empresa) ibiltzen da momentuko eta urgentziakoenak diren lekuetan konponketa txikiak egiten eta partxeak ipintzen. Auzoko langabetuak ez dira oso alai agertu plan honen aurrera erama-

teko erarekin, beraien ustez ez baitira kontutan hartuak izan. Familia Elkarteak ere beste urte piloa itxaroten egoterik ez dagoela eta auzo guztiaren berritze plana osorik eta ahalik eta arinen egitea behar-beharrezkoa dela uste du.

Begoñako gasolindegia, parke eta aparkaleku izateko bidean



argazkia: Inigo Azkona

Begoñako gasolindegia zegoen orubea.

Badira bi urte Repsolek Begoñako gasolindegia handitzeko proiektua luzatu zuela. Proiektu horrek aurkako hainbat mobilizazio sortarazi zituen auzokideen artean, Mahatsorri elkarteak zuzendurik. Gasolindegia handitzeko lanak hasi bazituzten ere, protesta hauen

eraginez, lanak geldiarazi egin ziren eta orduztik bere horretan daude. Zertan geratu da azkenean proiektu erraldoi hura? Udaletxeak auzokideen aurkatasuna ikusirik, Repsolekin negoziazio bat egin, eta lur hoiak San Adriango beste lur batzuegatik

trukatu zituen, erabaki honek San Adriango auzokideen protestak piztu bazituen ere.

Bien bitartean, antzinako gasolindegia lanetatik suntsiturik jarraitzen zuen. Hori ikusirik eta egindako lana aprobetxatzeko asmoz, auzokideek Udalari bertan parke bat egiteko eskaera egin zioten. Udalak bertan aparkalekua egiteko asmoa zuen eta parkearen ideia egokitzen jo zuenez, bi proiektuak biltzea erabaki zuen. Beraz, azken proiektua zera da: hiru solairuko aparkalekua (pisu bakoitzak 90 partzela izanik), eta horren gainean auzokideek eskatzen zuten parkea. Aparkalekuak harrera ona izango duela espero da, baina parkearentzat dagoen aurrekontua eskasegia dela diote auzokideek.

Aparkalekua egiteko lanak ekainean hasteko asmoa dago, eta urtebete beranduago bukatzea espero da.

B E R R I K A R I A

B E R R I K A R I A

Menendez y Pelayo kaleak norabide bakarria izango du



argazkia: Iñigo Azkona

Menendez y Pelayo kalea.

Mirafloreseko biribilgua (errotonda) bukatu eta gero Menendez y Pelayo kaleak norabide aldaketa izan du. Lehen, Fikatik Santutxu kalerako bide tarteak norabide bikoitza zuen eta orain norabide bakarrek (goranzko) bi karril ireki dituzte. Honetaz gain, Fikatik Menendez y Pelayo kaleko azken zenbakietaraino heltzen den bideak lehen zeukanaren alderantzizko norabidea izango du, goranzkoa, alegia.

Turkiako estatuak auzokide bi egotzi ditu

Turkiako gobernuak Kurdistanen zegoen Europako ordezkariak osoa kanporatu zuen apirilaren 1ean. Tarteak Euskal Herrikoa ere, eta hau Eneko Ribas eta Chepe E. Uronesek, "Gatok", osatzen zuten, Santutxu eta Otxarkoagakoak hurrenez hurren. Europako begirale taldea Kurdistango egoera zuzenean ezagutzeko hurbildu zen bertaraino, eta arduratuta itzuli dira giza eskubideen urrapenen aurrean. Newroz edo Egun Berri kurdiarraren ospakizunetan milaka lagun irten zen kalera Diyarbakir eta beste hiri eta herri batzutan. Manifestazioak eragotzi

Turkiako Polizia eta Armadaren basakeria salatu zuten ordezkariak, eta errepresioaren berri ez emateko egotzi dituztela aipatu zuten. Van hirian emakume bat hil arte jipoitu zuten eta zortzi urteko ume bat tanke batek zapalduta hil zen. Eneko eta Gato, Europako herri ugaritako 75 kideko taldeko Euskal Ordezkariak ziren. Adierazi dutenez, Diyarbakir Kurdistango hiriburua ez-ofizialean zeuden hoteletan sartu eta abioiz nahiz autobusez Istanbul bidera jarri zituzten. Taldeko italiar batek ordea, ziega turkiarretan Beldur dira, beraiek

Txurdinagako parkean txakurren komunak jarri dituzte



argazkia: Iñigo Azkona

Txakurrentzako komun berria.

Etxebarrriako parkean egin zuten bezala, Txurdinagako parkean ere txakurrentzako komunak jarri dituzte. Komun berezi hauek identifikatzeko "Pipi Can" jartzen duen kartela jarri dute bere ondoan. Honekin, inguruan ditugun parke eta zona berdeak garbi mantentzea espero da. Txakurrek komun propioak izango dituzte eta hauei esker ez dugu beren "oparitxo"-ekin topo egingo.

Karmelo Ikastolako ikasle-ohien topagunea

Hogeita hamahiru urtez bizirik dirauen Santutxuko Karmelo ikastolako ikasle ohien topagunea antolatu du apirilaren 25 arratsalderako. Horrelako ekitaldi bat egiten den lehen aldian izanik, ilusio handiz aritu dira antolatzaileak prestaketa lanetan. "Mila ikasle baino gehiago pasatu dira hemendik 25 promozio ezberdinetan eta Karmelotik atera zenetik hainbat jende ez du berriz elkar ikusi. Ikasle guztien topaleku izatea da helburua" diote antolatzaileek, nahiz eta ilusiorik handiena irakasle beraiek dutela onartu.

Programa polita prestatu dute bostetan hasi eta bederatziz edo hamar arte iraungo duen topa-



gunerako:

Lehenik eta behin, ikasle-ohi guztiei harrera egingo zaie. Ondoren, ber-

tsolariak izango dira bertan egon ezin dutenak gogoratuz eta batez ere mendian hil ziren "Sei Izar"i omen eginaz, bertako ikasleak baitziren. Gero, argazkia egiteko asmoa dago eta baita Ikastolako ateak irekitzeko ere, ikasle-ohiei oroitzapenak piztuaraziz, emandako aldaketak erakutsiz eta nor bere etxean bezala sentitzea helburu izanik. Ondoren merienda bat prestatu dute, euskaldunon bilgunerik onenak janaren inguruan izaten direlakoan edo, eta azkenik erromeria antolatu dute, lagun giroan disfrutatzeke asmoz.

Antolatzaileek, bertako ikasle izandako guztiei dei egiten die beraientzat bereziki prestatuak izan direlakoan parte har dezaten.

Santutxuko aste antimilitarista

Bostan (Kakitzat) Bolueta eta Santutxuko Talde antimilitaristak urtero egin ohi duenez, errebin-dikazio eta jai giroko aste bat antolatu du maiatzaren 11 eta 17a bitartean. Maiatzaren 11an hasiko dira ekitaldiak propaganda egun batez. 12an, astearte, hitzaldi bat emango da objeizio fiskalari buruz. Bertan, Objeto Fiskaleko eta Berriotxo Kolektiboko partaide bana, objeizio fiskala zer den eta nola egin daitekeen azaltzen saiatuko dira, "Ez gizonik, ez emakumerik ezta pezeta bat ere gerrarako" izenburupean. Hilaren 13rako berriz, "Euskal Preso

Guztiak Euskal Herrira Orain!" leloa duen enkartelada bat egingo da auzoan zehar, borroka antimilitaristaren barruan euskal presoekiko elkartasuna ere adierazi nahi baitute eta Herrira! plataformaren partaide baitira.

14ean, osteguna, mahai inguru bat egingo da "Euskal gatazka antimilitarismoaren ikuspegitik" izenez. Bertan, Bostan-ek pertsona eta kolektibo ezberdinekin euskal gatazka nola desmilitarizatu daitekeen eztabaidatzea izango da helburu, besteak beste.

Ostiralean, kalejira antimilitarista

batetara deitu dute eta gero auzoan zehar egingo den jaiaren parte hartzea. Jai honetan Gorilons txaranga eta antzerki bat egiteko asmoa ere badago.

Larunbatean ere, jai giroarekin jarraitzea pentsatu du Bolueta eta Santutxuko talde antimilitaristak, buruhandiak eta herri bazkari bat antolatuz, besteak beste. Bostan (Kakitzat)-etik adierazi digutenez, hau da aste antimilitarista honetarako oraingoz antolatuta dagoena. Hala ere, eta guztiz zehaztuta ez dagoenez, aldaketaren bat egon daitekeela esan digute.

Herrira-k presoak euskalerriratzea eskatu zuten



argazkia: Iñigo Azkona

27ko manifestazioa.

Hilero bezala, Martxoaren 27an ehundaka pertsonak euskal presoak euskalerriratzea eskatu zuten Santutxuko kaleetan zehar. Herrira plataformak antolatua, arratsaldeko zortzietan Ritxi enparantzatik abiatu ziren manifestaldiko partaideak eta orubete geroago bukatu zuten Karmelo plazan. Ondoren, kaleratu berri den Santutxuko Jokin Nuñez omendu zuten bertan. Bertsoak, dantza eta opariak izan ziren omenaldiko protagonista.

Santutxuko gazteak Oartzuneko topagunean

Santutxu auzoko hainbat gazte apirilaren 9tik 11ra bitartean Oartzunen ospatu zen Gazte Topaguneko partaide izan ziren. Kultur arloan gehiago eta besteetan gutxiago, ehundaka santutxutar egon zen topaguneko ekintza desberdinetan parte hartzen. Horrela, herriko ikastolan ikusgai zegoen erakusketan, zenbait santutxutar gazteren artelanak ikus zitèzkeen, hala nola, kuadro, argazki, eskultura... Ildo beretik, Txurdinagako Urtzi Urrutikoetxea idazle gaztea lanean aritu zen hiru egunetan zehar, literaturaren inguruko hitzaldi eta ekintza desberdinetan parte hartuz. Kirolari dagokionez, auzoak herri kirolean parte hartzeko hogeiki detako taldea zuen antolaturik, nahiz eta eguraldi eskasaren ondorioz, bertan behera utzi behar izan zituzten. Antolakuntza lanetan ere, Santuxu eta inguruetako gazteak gogor aritu ziren. Santutxu partaide, beraz, milaka gazte bildu zituzten Gazte Topaketetan.

Bizkaiko produktuen azoka Santutxun



argazkiak: Benito Fiz

Karmeloko azokako irudiak.



Joan den apirilaren 19an Karmelo kalean eta plazan Bizkaiko artisautza eta nekazaritzako produktuen azoka egin zen Santutxu Gure Auzoak elkarteak antolaturik. Indabak, gazta, txakolina, taloa eta bertoko beste hainbat produktu egon ziren salgai eta ikusgai postu ugaritan. Iaz egin zen lehenengoz baserriko produktuen azoka, bigarrena izan da hau beraz, artisauen produktuak, berriz, aurten ipini dira lehenengo aldiz. Eguraldi onak eta trikitixaren doinuak lagundurik jende ugari hurreratu zen bertara.

euskal eskola publikoaren festan

Arrate Diez. Argazkiak: Iñigo Azkona

Martxoaren 29an Euskal eskola publikoaren aldeko egundoko jaia ospatu zen Etxebarria parkean. Goizeko lehen ordutik gaueraino jendez gainezka aurkitu genuen parkea; umetxoak, gazteak, gurasoak... denek hartu zuten parte festan.

"Euskara danona, denok euskaraz" lemapean Euskal eskola publikoaren aldeko zazpigarren jaia izan genuen Begoñan.

Milaka pertsona bildu ziren Etxebarria parkean, bertan karpa erraldoi asko zeuden aktibitate ezberdinetarako, hala nola, erakusketak, antzerkia, kale animazioa, jolasak, ...kontzertuetarako ere eszenatoki bi

zeuden bakoitza errezintorearen alde batean.

Jaia ez zegoen umeentzako bakarrik prestatua, gurasoek ere bazuten euren tza ko



Umeentzako kale animazioa.




PUNTA KO KIROL MARKAK

SANTUTXU SPORT

KARMELO, 9
Tfona: 412 37 01 **SANTUTXU**

Otoio

Mendi

Sta. Klara

Lanbroa




Mozorrotzeko egun aproposa.



Eskalada festa girotuz.

euskara denona
denok euskaraz




euskal eskola
publikoaren festa

lekua. Baziren jateko zein edateko txosnak ere, eta honelako jaietan ohi denez, "tragoak" edo bokatak hartzeko tiketak erosi beharra zegoen. Iluntzean eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, egunean zehar eguraldi ederra izan zen eta izozkiak saltzeko kioskoek lana izan zuten. Gazteontzako entretenimendu nagusia kontzertuak izan ziren. Hainbat taldek jo zuen, besteak beste, Haik Hor Begoñako talde berriak, eta guztiek giro ezin hobea sortu zuten Etxebarria parkean.

1998ko apirila. 3. zenbakia.

bertin

Aurtengo aurrematrikula kanpaina eredu euskaldunetan



Bukatu berri da ikastetxe guztietan haurren matrikulazio kanpaina. Orokorrean haur kopurua jaitsi bada ere, gure inguruko ikastetxeetan emaitza ezberdinak izan direla jakinarazi digute zuzendariak. Karmelo ikastola eta Briñas eskolan matrikulatu diren haurren kopurua dexente jaitsi den bitartean, Txurdinagako eskolan eta Kirikiñon iazko kopurua mantentzea lortu dute, gelak topera egonik. Horrela, Kirikiñok bi urtetako 12 haur berri ditu eta hiru urtetako 75, guztiak D ereduan. Txurdinagako eskolan bi urtetako 36 eta hiru urtetako 50 D ereduan, eta B ereduan gela bakarra. Karmelo ikastolan aldiz, bi.



A zer pareta, aita eta semea!

GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

Telefonoa:
(94) 669 32 79
Mugikorra:
908- 45 16 22

**MASAT
TERAPEUTIKOA**

L.A. CAMACHO
411 32 20

DAYTON
Reagge-festa
taberna

Santutxuko poteo gunean

Pilota eskolaren lehen tantuak


Pilotak, hainbat kirolek bezala, Mahatserrian bere tokitxo behar du. Honegatik, Txurdinagako kiroldegian euskal pilotako eskola hasi da martxan. Eskola honek, hasierako urratsak eman ditu eta momentuz oihartzuna lortzea du helburu. Nork daki!, baliteke Torre, Juan Pablo edo Isusi bat hemendik ateratzea.

Unai Cuevas

Mahatserrian pilota eskola bat sortzea federazioan burututako ideia bat izan zen. Ideia edo proiektu honen asmoa pala bultzatzea eta umetatik kirol hau praktikatzeko irrika sortzea zen. Esku pilotako eskola ere sortzeko ahaleginak egin ziren baina ez zen aurrera atera, dirudienez jendearengan ez zuen gogorik piztu.

Pilota eskola aurtengo neguan hasi berria da. Hasieran nahiko kaskar ibili baziren ere pixkanaka hobekuntza bat nabaritu izan dute partaidetza aldetik. Orohar, gaur egun, 30-40 gaztek astintzen dute pilota gogor. Hauen adina 6 eta 15 urte bitartekoa da eta maila ezberdinetan banatzen dira: 12-13 urtekoek alebin mailan jokatzen dute

Argazkia: Iñigo Azkona



Eskolako gaztetxoak palan.

eta 14-15 urtekoek kadete mailan. Infantil mailaren hutsunea nabaria da, hala ere, datorren urterako maila honetan ere arituko dira. Momentuz, alebinek zein kadeteek txapelketa ezberdinetan parte hartzen dute. Txapelketak

"Ideia honen asmoa pala bultzatzea eta umetatik kirol hau praktikatzeko irrika sortzea zen"

federazioak antolatzen ditu baina maila bakoitzeko txapelketaren ardura esku ezberdinetan geratzen da. Alebina, eskola mailakoa da eta eskolen esku dago ardura guztia. Kadete mailakoa, ostera, federazioak hartzen du osorik bere gain. Hau honela, alebinak eskola ezberdinen aurka aritzen diren heinean kadeteak Enkarerrietako taldeen aurka lehiatzen dira.

Eskola honen antolaketari dagokionez, esan beharra dago federazioko kide bat dela arduradun nagusia eta honen aginduetara 3 monitorea daudela klaseak ematen.

Klaseak, astelehenetik ostiralera izaten dira 5etatik 7etara. Astelehen, asteazken eta ostiraletan gaztetxoak eta kadeteak aritzen dira eta astearte eta ostegunetan hurrengo urtean infantilak izango direnak eta alebinak.

Materialari dagokionez, bakoitzak berea eraman behar izaten du, hori bai, prezio merkeagoan lortzen dute pilota eskolak. Arlo honetan diru laguntzen zain daude eta banatzen ez diren arte beren materiala ordaintzen jarraitu beharko dute. Ikusten denez, eskola hasi berria da baina gogo eta ekinaren ondorioz aurreruntz doa pixkanaka. Honela jarraituz, etorkizunean Mahatserria pilota jokalaria bikainen harrobia izatera heldu daiteke. Eta agian "Txikito de Txurdinaga", Santutxuko Julian Retegi edota Begoñako Isusi-ak telebistatik ikusteko aukera izango dugu.


PILOTA txapelketa

PILOTA TXAPELKETA BAT ANTOLATU DUTE
EUSKAL PILOTAKO BIZKAIKO
FEDERAZIOAK ETA
I.E.S.TXURDINAGA-ARTABEK. BI
MODALITATEKO TXAPELKETA IZANGO DA:

- **Pala.** Teniseko pilotarekin.
- **Eskuz.** Pilota bigunarekin.

Hasiera Apirilaren 28an izango da eta partiduak arratsaldeko 4,30ak arte jokatuko dira.

- 12 urtetik gorako guztiek parte ahal dute.
- Ez da ezer eroan behar (Ezta pala ere).
- Federazioko monitorea egongo dira.
- Bikoteka jokatuko da, mutilak eta neskak.



Zure propaganda
**HEMEN
HEMEN
HEMEN**
4735448 tfnoa.



ISALAND
PROIEKTU
ETA
ERREFORMAK

Fika, 54 - Telefonoa: 94-4334781

48006 Santutxu - BILBO

kulturberriak

Bilbo berriro bigarren BBK Txapelketan

Lea Artibaiko bertsolariak gailendu ziren aurten ere

Bilboaldeko bertsolari taldeak ezin izan zuen joan zen martxoaren 28an Kafe Antzokian jokaturako VI. BBK Txapelketa irabazi. Aurreko zenbakian genioenez, igazko finaleko partaide berberak zeuden, eta errebantxa gogo bazuten ere, bigarren lekua erekin konformatu behar izango dute aurten ere.

Saio dotorea egin zuten biek ala biek, nahiz eta azken puntuazioari begira, Lea Artibaikoek aise atera lehen postua. Kafe Antzokia beteta egon zen, eta hasiera batean

Markina eta ingurutik etorritakoak nabarmendu baziren ere, azkenerako etxekoen jarraitzaileek ere han zeudela erakutsi zuten.

Umoretsu, agurretan nahiz saioan zehar ez zuten elkar zirikatzeko paradarik galdu, baina esan bezala, gaztetxu zein gazteen sailetan argi egon ziren aurretik Lea Artibaikoak. Bertsolari gazteenaren saria Xabier Paia algortarrak (Bilboaldeko taldekoa) eroan zuen igaz legez, eta oraindik etorri luzea dauka. Bizkai-eraren erabilera onenarena ez


zuen finalista batek ere irabazi, finaleko atarian gelditutako Busturialdeko Ibon Ajuriari baino.

Hortaz, beste urtebete itxaron beharko da BBK saria Bilbon geratu dadin. Gogoratu, aurtengo zazpi kideetatik bost zirela Santutxuko Bertso Eskolakoak (Matxalen Zabaljaurerri, Arkaitz Estiballes, Iñaki Gonzalo, Marta Ortiz eta Urtzi Urrutikoetxea), eta Paia anaiak aldiz, Algortakoak dira. Hirugarrenean, ziur baietz!

Doctor Deseoren azken lana kalean da

«Hay cuentos aún por inventar» izenburupean atera dute Bilboko Doctor Deseo taldekoek azken diska. Hamaika kantu bildu dituzte, ohi denez Francis Diezek idatziak, Xabier Leteren poema batetik hartutako "Ni naiz" izan ezik. Taldeak bere hartan jarraitzen du, aurreko "Gotas de dolor... un charco de olvido"n Hertzainaketik batu zitzaizkien Kike eta Txanpirekin, eta Raul eta auzakide dugun Joxi baxujolearekin batera. Halaber, Iosu Monge taldeko bateria ohia izan da grabazio teknikari eta koproduttore.

Urte hasieran grabatu zuten Berrizko Lorentzo Recordsen estudioan eta oraintsu merkaturatu dute. Oraindik larregi entzun ez bada ere, ziur "Fugitivos del paraíso" osteko arrakastarekin jarraituko duela. Gogoratu lehenago lan bi ere bazituztela. Aldizkari eta egunkarietako kritikoek aurretiaz iragarria zuten diskoa eta zain ere bazeudela esan daiteke. Lehen kritikei begira, badute lanarekin pozik egoteko arrazoirik Doctor Deseoek.



Interneten ere b@gara



Web amaraunean (Interneten) sartu dugu berton. Hil honetatik aurrera gure edukinen laburpentxoak ikusteko era izango duzu. Orriaren diseinua gure kolaboratzaile Joseba Barrenetxeak egin du. Ordenadorearen bidez Mahatserrian denaren berri izan dezakezu munduko edozein lekutan zaudela ere. Era berean, gurekin harremana izan dezakezu e-postaren bidez. Teknofobikoa ez bazara, behintzat, aukera polita duzu berton, osorik ez bada ere, irakurtzeko. Hona hemen helbidea:

<http://www.come.to/berton>

e-posta: berton@mail.com

Santutxutarrak Interneten



Berton amaraunean Santutxuko talde batzuen laguntzari esker ipini dugu. Talde hauek ere euren webguneak dituzte, eta gauza interesgarriak topatuko dituzu bisitatxoa egiten badiezu.

Santutxuko Euskal Txokoa

webgunea: <http://www.come.to/santutxu>

e-posta: asapala@eusnet.org

Santutxuko euskara taldeak beste txokotxo bat dauka zabalik aspaldi amaraunean. Oraingoan webgunea berritzen dabilta, baina ikusteko moduan dago dagoeneko. Euskal Txokoa, Santutxu eta bertan euskalgintzan dabilzan erakundeen informazioa ipintzeko asmoa dute. Era berean txokotxo hau Santutxuko euskaltzale guztien esku dagoela diote. Honela bada, Santutxuko Bertso Eskolako Bertxotx bertsu paperen bilduma edo Santutxuko AEK-ko mintza taldeak batutako argazki zahar batzuk.



Sortu ta sortuz

webgunea: <http://www.geocities.com/SoHo/5744>

e-posta: sortuz@mail.org

Santutxuko gazte sortzaileen taldeak ere badu bere webgunea. Han Beren-beregi aldizkaria eta Islada gehigarrian agertu diren edukiak ikusteko parada izango duzu. Santutxuko gazte sortzaileen lanak eta munduan zehar batutako beste hainbat lanek (Kuba, Mexiko eta Irlandako olerkiak eta literatur-lanak) osatzen dituzte hurrenez hurren agerkari biak.

Jalgi Hadi: euskara hutsezko web orrialdea

webgunea: <http://www.geocities.com/Athens/9299>

e-posta: j.barrenetxea@arrakis.es

Gure kolaboratzaile eta diseinatzaile grafikoa den Joseba Barrenetxearen webgunea. Hainbat edukin paratu ditu bertan: kantak, olerkiak, bertsoak, ipuinak, irudiak... Ikusteko atsegina eta entretenigarria. Euskara hutsez dena, hori bai.



D E A K

HOROSKOPOA

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Lorontzia erregalatu deusuela eta non ipini ez dakizula? Trankil, azkenotan telefono mugikorrek modan dagozan modure, laster batean lorontziak buruan eroatea be bai. Lorontzia buruan eta ibili munduan.

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Txan tata txan... Hainbeste urtetan prestatzen zabilzan trukoak azkenean fruituak emon deusuez, ezta? Bazan ordua! Kontuz ibili fruituakaz, beharbada izozkailuan sartu beharko dozuz kontserbatu daitezcan.

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Zer uste dozu, daukazu lotsabako aurpegiagaz ez zaituela harrapatuko ala? Noizean behin hoba dozu apur bat lotsatutea, ezpabere, zureak egin dau.

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Amabirjina dirudizu beti zerura begira. Zertan zabilta ba? Grazia dibinoaren pentsuan ala?

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Zure laguna ez da oraindino kargutu hurreratzcan zerean bakoitzean bihotzeko taupadak bikoiztu egiten jatzuzala? Esatsazu markapasosa beharko dozula laster baten. Bihotz bakarra dozu eta.

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Zapata bakoitza kolore batekoa daroazula eta oraindinoarren enteratu be ez? Txikitan sasieskola egin zenduan koloreak esplikatuebezenean, ahalegindu zaitez San Juaneko arkuko koloreak desberdiduten eta ipini zapatak gero.

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Tik-tak, tik-tak, tik-tak... Ringgggg!!! Zer pentsatzen zenduan, erlojuari begira eta begira eta ordua ez zala inoz ailegatuko? Buruan daukazu erloju madarikatu horri be kendu eitsazuz pilak behingoz!

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Pailazo baten antza dozula dinotsue? Hoba zuretzat, zure lagunak ez dakie pailazoak munduko pertsonajerik zorionsuenak dirala, ala?

Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Kaparrak ingurutik kendu ezinik zabilta? Holango momorroak uxatzeko krema barria atera ei daurie merkatura, beraz, zeuk ikusi zelan konpontzen zerean behin emonda danak espantatzeko. Animo!

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Ehunzango batek baino galtzerdi gehiago erabiltzen dozuz, ala? Ordua da galtzerdia garbitu beharrekoan hantetako ugerra be kentzeko.

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Sukaldari traketsa zarea esan deusue? Zera ba! Seguruenez ez daurie probatu umore onean zabiltzanean egiten dozuzan txokolatzeko opilak.

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Garrikoak ez deusula emoten? Edan eizu garagardo gitxiago edo joan zaitez mendiko puntara siesta egiten, alfer hori!

HIEROGLIFIKOA

Barioa
ZK
Aluminioa
O.K.



Opariak, noiz?

AURREKO HILEKOAREN SOLUZIOA

KONTZERTURA

LETRA ZOPA

Topatu egizuz Mahatserriko hamar kaleren izenak.

A	G	A	O	G	A	F	R	O	N	E	T
N	I	S	L	U	B	K	N	T	K	O	A
T	M	J	U	A	N	V	I	A	R	S	L
X	A	L	Z	T	L	N	L	B	N	R	B
I	Z	Ñ	D	A	K	A	Ñ	K	O	I	A
R	U	E	T	A	M	A	O	C	R	I	C
R	S	S	B	U	B	A	U	I	L	A	E
I	T	A	A	N	S	D	R	T	A	B	T
T	E	U	I	A	T	I	R	R	Z	T	E
A	G	E	N	O	D	N	O	Z	I	L	E
T	I	K	I	R	O	K	U	S	Ñ	P	K
P	A	S	A	N	T	A	L	U	C	I	A

ZURE
PUBLIZITATEA

bertin

bertin

Santutxu aitzindari

Doinua: "Aizak hi mutil mainontzi"

1
Santutxuk zor euskarari
honek diona berari
bata bestea, beti loturik
hori da nabari.
Euskaldun berri ugari
zaharrak lanean gidari
nola izan den kontatuko dut
bertsotan kantari. (bis)

2
Frankismo garaian hasi
bazen bertan larra-sasi
zabarkeria eta bildurra
bertan ziren nahasi.
Gazteria esnarazi
lurra landu, erein hazi
berehalaxe zein zen bidea
genuen ikasi. (bir)

3
Zabal erderaren hatza
iraulketa pentsa latza
baina posible aurreratzea
emanez urratsa.
Burua genuen altza
jorratzen hasi baratza
zahar ta gazteok elkar harturik
antolatu martxa. (bis)

4
Karmelo bildugunea
urratzen hasi bidea
giroa etsai, oso kontrako
orduko legea
bazen gogoia ordea
antolatzeko sarea
euskalzaleon artean sortu
genuen taldea. (bis)

5
Bertan sortu Ikastola
"Karmelo" izenez hola
geroak digu erakutsia
ez zela eskola
adorea dariola
indartu zaigu arbola
bere itzalak esaten digu
zutikan dagola. (bis)

6
Hirurogeigarrenean
Iturriaga kalean
koka zitzaigun jaio berria
solairu xumean
gau eta egun lanean
kanpoan zein barrenean
urratsez-urrats hedatua zen
auzo zabalean. (bis)

7
Bazen euskara klaserik
han hemenka banaturik
bildu genitun denok Karmelon
ongi elkarturik.
Ez zen holako auzorik
mila ikasle bildurik
espainoltzale guztiak ziren
aski kezkatu. (bis)

8
Ospatzen zen euskal jaia
zer ginen erakuts nahia
ahaleginetan aritzen ginen
zerbaitetan saia.
Baina bazuten sustraia
holakoa zen garaia
Euskal Kultura zuzpertzera zen
helburu ta gaia. (bis)

9
Asmatu haurren eguna
euskal girotze kuttuna
urte batzutan ospatu genun
jai oso txukuna:
kanta ta dantza jarduna
lortu genuen laguna
erdal giroan egun osoa
egin euskalduna! (bis)

10
Denon koordinaketa
gau eskolak behar eta
Euskal Herrian sortu zitzaigun
eskerrak AEK!
Ez da gero berriketa
altza ta gora kopeta
aurrera goaz gure bidean
nahiz eta golpeka. (bis)

11
Franko hil ondoren dira
nahastea ta tira bira
Ikastolan zen ezin konponduz
handia mugida
elkarrekin ezin fida
beti ikusten intriga
bat genuen ta bestea sortu
Kirikiño, tira! (bis)

12
Eskoletara euskera
hasia da zabalera
oso astiro mugitu arren
badoa aurrera
oraindik du hasiera
nagusi noski erdera
euskaltasuna bideratzea
guztion afera. (bis)

13
Auzoko kimu barria
guztiz erakargarria
Euskal Kultura bizirik dela
hor ezaugarria
bazen bertso egarria
eskola da oinarria
Santutxun berriz aitzindari lez
da martxan jarria. (bis)

14
Sortu zen Euskal Txokoa
euskaldunen gogokoa
gure hizkuntzan bideratzeko
jolas ta jokoa
ametsa ez da gaurkoa
finkatzen du gerokoa
gure semeen etorkizuna
nahi dut holakoa (bis)

15
Orain jatorkigu "Berton"
notiziaz eta sakon
izugarritzko ilusioa
berak zidan emon
lanean andrezko-gizon
hartu milaka esker on
luzaro iraun bide horretan
bihotzez zorion! (bis)

16
Handia dugu erronka
euskara pipiaz jota
ez pentsa gero gure aldeko
dugunik Europa.
Hizkuntza gure maskota
lehen ta geroaren soka
"Euskaraz bizi" Santutxun ere
guztion borroka. (bis)

Tasio Erkizia
(Basauriko espetxetik)
Santutxuko Bertso Eskola

EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA



SAK